

Aditzaren aspektuaz edo gaztelaniazko orainaldi historikoaren baliagarritasuna euskaraz

Jaione Agirre García
Historialaria, UEUko kidea eta EHUKo irakaslea

Historiako artikulua euskaraz idatzi ohi ditugunean, edo historiak euskaraz idazten dugunean, gaztelaniaren eraginez, maiz, orainaldiko aditz-formak erabiltzen ditugu —gaztelania lehen edo bigarren hizkuntza gisa daukagun historialariek, jakina—. Historiako idazlan produkzioan gaztelaniaz orainaldi historikoa erabiltzea da horren arrazoia. Lan honen helburua honako hau aztertzea da: iraganean gertatutako gauzak idatziz kontatzeko euskaraz zein aditz-forma erabili diren, eta, beraz, historiak aritzean zeintzuk diren historialariek erabili beharko genituzkeenak.

When we, historians, write a history article or we write about history in Basque, we tend to use the verbs in present tense. It happens to historians whose first or second language is Spanish, because of the form called *presente histórico*, that is very common in history works in that language. In this article, we try to analyze which verbs and tenses have been used and are to be used when writing in Basque about the past.

1. Sarrera

Aspalditik, euskaraz historia idaztean (edo historiaz lan bat egiteko edo azterketa bat egiteko, besterik ez bada), zalantzak sortu zaizkigu erabili beharreko aditzaren aspektuaz, batik bat, gaztelaniazko orainaldi historikoaren formen erruz. Lan txiki honetan arazoa bideratzeko hurbilpena egin nahi da, gramatikako liburuetan (Euskaltzaindiakoetan, gehienbat) zenbait aditz-formaren erabilerari buruz ematen den azalpena ikusiz eta aztertuz. Jakina, historialari batek egindako lana da, eta ez hizkuntzalari batena; beraz, proposamen honek filologoaren erantzuna eta kritikak sorrarazi nahiko lituzke ezer baino gehiago.

1. Zenbait definizio

Aditz jokatuaren artean bi motatakoak daudela esan genezake: batetik aditz trinkoak (hau da, aditz nagusia jokatu denean, *dator*, adibidez), eta bestetik aditz perifrastikoak (hots, aditz nagusia eta aditz laguntzailea daukatenak, *etorri da*, adibidez). Bietan ageri da denbora adierazteko marka.

Denbora deiktikoa da, hau da, idazten edo esaten den unetik kontatzen dira denboraren hirualdiak (orainaldia, iraganaldia eta geroaldia). Aditz ez-jokatuak ez dute denbora-markarik eramaten (adibidez, «oheratu baino lehen»), baina jokatuak bai («berandu oheratu zen»).

Jokatuaren bi eratako osagaiez adierazten da denbora-izaera: aspektua (ekintza burutua, ez-burutua eta geroa) adierazten duten osagaien bidez eta *tempus*-a (iragana, iragana ez dena eta alegiazkoa) adierazten dutenen bidez. Aspektua nahiz *tempus*-a, biak behar dira denbora adierazteko, eta, beraz, biak elkarri egokituta ageri behar dira aditzak osatzean; hots, ideiak adierazteko logika baten arabera erabili behar dira.

Aspektuari dagokionez, aspektu burutua, ez-burutua eta geroa formak daudela esan dugu¹, eta aditzoinari aspektu-markak gehituz osatzen dira hiru adizkiak (Zubiri eta Zubiri, 1995: 396). Burutua izateak esan nahi du bukatuta dagoen ekintza, prozesu edo gertaeraz ari garela. Ezaugarri hori aditz nagusiaren partizipioan adierazi ohi da (zero markaz, *-i* eta *-n* letraz bukatzen diren aditzetan; eta *-tu* markaz, besteetan):

etorri
joan
garbitu

Aspektu burutu gabea edo ez-burutua izateak gertaera edo ekintza hasita dagoela, baina ez dela bukatu esan nahi du², eta *-izen* amaiera gehitzen zaio aditzari (*-ten* amaiera, *-n*, *-s*, *-z* edo *-x* letraz bukatzen diren aditz-oinetan):

1. Baina ez du, berez, denboraren aldiarekin zerikusi zuzenik —horretarako dago *tempus*-a—; hala ere, aspektuaren markak eragina izango du erabili beharreko aditz laguntzailea aukeratzean (Zubiri eta Zubiri, 1995: 396).

2. Bereiz, nolabaiteko ekintza edo gertaeraren maiztasuna dute inplizituki adierazita (Zubiri eta Zubiri, 1995: 399).

etortzen
joaten
garbitzen

Aspektuaz geroa adierazteko, *-ko* marka hartzen du aditz perifrastikoaren aditz nagusiak (*-n* letraz bukatutako aditzetan *-go* da³; ekialdeko euskalkietan, berriz, aditzek hartzen duten marka *-(r)en* da):

etorriko da / etorriren da
joango da / joanen da
garbituko dute / garbituren dute

Baina bestelako kategoria bat ere badago aspektuari dagokionez: puntuala izatea, puntuaritasuna edo puntualtasuna ere deitzen dena. Aditz trinkoetan orainak eta iraganak adierazten dute puntual izate hori, adibidez: *dator*, *zeturten* bezalako aditz-formekin⁴. Aldiz, aditz perifrastikoetan ezin da zuzenean eraiki, eta *ari da* bezalako egitura gehitu behar zaio aspektu burutu gabeko atzizkiak gain, adibidez: *jaten ari da* (*ariko da* etorkizuna adierazteko edo *ari izan da* iragana adierazteko).

Tempus-ari dagokionez, esan dezagun denbora psikologikoaz ari dela batez ere. *Tempus*-a aditz laguntzaileari jartzen zaio (trinkoek agerian izaten dute) eta, berez, iragana eta oraina baino ezin dira bereizi era horretan⁵:

dator
etorri da
joan zen

Hala ere, garbi ikusten da kontua ez dela hain sinplea. *Tempus*-aren markaz gain, aspektuaren geroaldi-markaz osatuta, orainaldiaz eta iraganaldiaz gain, geroaldia osa daiteke: *garbituko du*.

Aldia beste era batean ere zehatz daiteke, denborazko adberbioa gehituz, alegia. Gainera, *etorri da* bezalako formek itxuran baino ez dute orainaldia adierazten; izan ere, berez, burututako ekintza adierazten dute, eta, beraz, pasatutako gertaera edo ekintza. Beraz, orainaldia edo iraganaldia den jakiteko, pertzepzioari dagokio bereiztea, eta bai jartzen zaien denborazko adberbioari eta, kasu gehienetan, aditz laguntzaileari ere. Itxuraz, egunari dagokionez, gauerdiko hamabiek ezartzen dute muga aditz laguntzailea iraganeko forman jarri ahal izateko, baina euskalkiaren arabera, oraineko aditz laguntzailea jar daiteke muga horretatik aurrera ere:

Mikel bart 23:00etan etorri zen / etorri da (lehen da arruntena, baina iraganaldi zentzua du, edonola ere, bigarrenak ere).

Mikel bart ordu bietan etorri da.

3. *-l* letraz amaitzen diren aditz batzuetan ere bai, horregatik *hilgo* nahiz *hilko* formak daude onartuta.

4. Hala ere, betikotasuna ere adierazten dute aditz hauek, «Xabierrek begi urdinak dauzka» bezalako adibideetan ikusten denez (Zubiri eta Zubiri, 1995: 400).

5. *Tempus*-aren azken forma alegiazkoa da, baldintzek, baldintzen ondorioek eta ahalerazko hipotetikoek osatutako taldean ageri dena, adibidez: *banentor* edo *nentorke* bezalako formek daramaten *tempus*-a. Baina hori aztertzea ez zaigu hainbeste interesatzen lantxo honetan.

Ondorioz, salbuespenak salbuespen, hitz egitean edo idaztean erabiltzen den denborazko unitatearekin bat eginik joan behar du *tempus*-ak. Adibidez:

Aurten etorri da.

Joan zen urtean / iaz etorri zen.

Hala eta guztiz ere, beraz, denboraren izaera iraganaldia, orainaldia edo zer den benetan jakiteko, testuinguruaren beharra dago, aditz-formak berak bakarrik ez du argitzen eta. Hona hemen beste adibide garbi batzuk:

20 urte ditut.

20 urte ditut orain (ia parekoak dira).

20 urte nituen.

20 urte nituen orduan (esaldi hau ulertzeko, aldiz, hizketan noiz ari garen jakin behar da).

2. Denbora adierazteko aditz-formetan oinarrituta, orainaldi historikorako hurbilpena

Gaztelaniaz historiako testuak idaztean, oso ohitura zabaldua da *presente histórico* delakoaren aditz-formen erabilera, historiografia landu eta modernoan⁶. Horrek esan nahi du iraganeko kontuak eta gertaerak orainaldiko aditzekin idazten edo kontatzen direla. Egitura hau, normalean, iraganaldiko formen monotonia hausteko eta, aldi berean, gertaera horiek irakurleari (edo entzuleari) hurbiltzeko erabiltzen da. Maiz ikusi ditugu era honetako esaldiak:

Carlomagno invadió Sajonia. Pero los sajones se sacudirán el yugo carolingio varias veces durante varias décadas, lo que obliga al propio Carlomagno a tomar parte en las invasiones⁷.

Hori dela eta, euskaraz ere estilo edo idazkera hori sarritan kopiatu da, eta horren zilegitasunaz zenbait zalantza sortu dira historialarien eta filologoaren artean.

Forma horren erabilera hori zilegia den ala ez ikusteko, azter dezagun zein eratan eta zein testuingurutan erabil daitezkeen orainaldiko aditz-formak, eta baita *iragan geroa* deitzen den beste aditz-forma berezi hori ere.

Orain puntuala (adibidez: *dator*⁸) testuinguru desberdinetan erabil daiteke:

a) mugagabea, adib.: «gure hizkuntza oso zaharra da».

b) jarraikorrean, adib.: «hor dator» (oraina), «bihar dator» (geroaldia).

c) ebentualean, adib.: «prest zaudenean hasiko gara».

d) errepikakorrean, adib.: «gehienetan pozik nago».

6. Real Academia Española-ren gramatikan honela dator definituta *presente histórico*-aren erabilera: «221. Se llama *presente histórico* al empleo, tanto en la narración escrita como en el vivo relato coloquial, de las formas de presente para aludir a hechos cronológicamente ocurridos en el pasado» (E. Alarcos, 1994: 156).

7. Idatzi hau neuk asmatua da eta ez dut inondik jaso.

8. *Etorri* aditza aukeratu dut adibideetarako, trinkoa izanik, berezko aditz-formetan aspektu puntuala edo puntukaria ere baduelako, bestelako errekurtsoetara jo gabe.

e) Lafitte-k *gnomiques* deitu zuen forman, adib.: «urak dakarrena urak daroa».

f) estilo arkaikoan: subjuntiboaren ordeaz edo optatiboan, adibidez: «*lainkoak hala nahi duela*» (Axular)⁹.

Orain ez-burutua (adibidez: *etortzen da*), hau ere forma desberdinetan erabili ohi da:

a) mugagabea: «Koldo ezagutzen dut».

b) errepikakorrean: «ez dut libururik erosten, liburutegian hartzen ditut eta».

c) geroaldian: «zer ordutan iristen da Maria bihar?»

d) ebentualean: «apostua irabazten badut, afaltzera gonbidatuko zaitut».

Orain burutua (adibidez: *etorri da*): aditz-egitura hau formaz oraina den arren, burututa dauka aspektua, beraz, iraganaldia da, baina, betiere, erreferentzia gisa erabili den denbora-unitateetik begiratu behar da normalean, aurrez esan dugunez¹⁰. Adibidez:

Mikel goizean etorri da (gaur, baina jadanik iraganaldian, pasatuta baitago gertaera hau).

Mikel aurten etorri da, baina Jon iaz etorri zen.

Beraz, orain burutua iraganaldiko zentzuan, normalean hitz egiten edo idazten ari garen denbora-unea baino lehenagokoez aritzeko erabil daiteke, eta darabilgun eta gauden denbora unitatearen mugen barruan; hots, egunari dagokionez, gaueko hamabietan dago muga:

Mikel goizeko hiruretan etorri da, baina Xabier gaueko hamaiketan etorri zen.

Baina, gramatikek diotenez eta ikusi dugunez, honela erabil daiteke, antza, zenbait euskalkitan: *etorri da* erabiltzen jarraituko lukete norberak erreferentzia gisa jarritako unitatea baino lehenagokoez arituagatik, adibidez:

Mikel gaueko hamaiketan etorri da bart.

Orain-geroa (adibidez: *etorriko da*)

a) geroaldia adierazteko erabiltzen da: «Mikel bihar etorriko da».

b) menturazko nozioa (erabilera modala) orainaldian egiteko: «Zuk horrela badiozu, egia izango da».

c) baimena eskatzeko-eta: «Beste taberna batera joango gara?», «Eseriko zara, mesedez?»

Iragan-geroa (adibidez *etorriko zen*), honek ere hiru balio desberdin dauzka:

a) «Iraganeko ikuspegitik geroago gertatu behar zuena adierazteko» (EGLU-II, 1987: 425), adibidez:

9. EGLU-II-tik aterata.

10. Ez dezagun ahaz euskalki batzuetan agertzen den salbuespena.

Esan nizun neronek egingo nuela.

24 urterekin New York-era joan zen; han ezagutuko zuen bere emaztea.

«Alderdi guztiekin hitzeginaz erabakiko zen gure arteko arazo guztien konponbidea» (M. Atxaga, *DEIA*, 1986/12/12)

«Hitz eman-cion Salbatçailleari lehenago hillen-cela, ukhatuco-çuen baino haren dicipulutaric cela» (Larregi, *Testament çaharreco eta berrico historia*, 296. or.)

- b) «Menturazko modalitasuna iraganaldiarekin konbina daiteke (...)» (EGLU-II, 1987: 425), adibidez:

Zuk ezagutuko zenuen nire anaia, ezta? (beraz, iraganean hipotesi gisa esaten da ezagutuko zuela, baina baietz uste izan da).

- c) «Iraganaldiko baldintza irrealen ondorioetan» (EGLU-II, 1987: 426), adibidez:

Zure laguna ezagutu banu, neronek gonbidatuko nuen (ez zenez horrela, zuk gonbidatu behar izan zenuen)

Zaldia saldu banu, asto bat erosi beharko nuen (haren lana egiteko)

Zer esango zenuen, jakin izan bazenu?

3. Arazoaren muina

Ikusi eta era laburrean aztertu ditugun aditz-forma horien guztien artean, orain burutua eta iragan-geroa dira begiratu beharrekoak, zientzia arloan aplikatzeko eta, gure kasu honetan historiari dagokionez.

Iragan-geroaz esan behar da dagoeneko aztertuta dagoela bere aplikazioa euskara teknikoaren inguruko ikerketa batzuetan. Hain zuzen ere, natura-zientzien arloan Juan Carlos Odriozolak aztertu ditu EGLUK iraganaldiko baldintza irrealen ondorioak deitu dituen horiek. Forma hori hipotesiak planteatzean erabiltzeko dela ikusi du azterketan; eta, gainera, iragan-geroaren inguruko baldintzetan azpitaldeak edo mota desberdinetakoak sailkatzera iritsi da. Hona hemen bere lanaz egindako sintesia¹¹. Egile honek iraganean gerta zitezkeen hipotesiak plazaratzeko aurkezten ditu iragan-geroko baldintzen ondorioak; batzuetan, gainera, baldintza zehatzetan sortutako testuinguru bati dagozkion fenomenoentzat (ondorioz, gaur egun hain modan jartzen ari den Historia-fikzioa izeneko Historiaren joera edo joera historiografiko berri horretan erabili ahal izateko modukoa da¹²). Edonola ere, egile honek hiru motatako baldintzak sailkatzen ditu¹³, ondorio irrealenetik hasita egiazki gauzatuko zenera mailakaturik, nolabait esateko:

- a) «Gauzatu ez zen iraganeko mundu posible horretan bertan gauzatu zatekeen ondorioa» (Odriozola, 1996: 197-198), adibidez:

Lurreko bizitza silizioan oinarritu balitz, oso bizidun ezberdinak garatu(ko) ziratekeen / oso bizidun ezberdinak garatuko ziren.

11. Lan osoa ikusteko, ikus Odriozola 1996 (196-203, 213-214).

12. Zenbait historialari genero edo moda honekin oso ados ez gauden arren; ez baitugu uste benetan oso "zientifikoa" denik Franco-k gerra irabazi ez balu edo jaio ez balitz, zer-nolako Espainia izango genuen era zientifikoa pentsatzen hastea; hala ere, haren alde esan behar dugu, badirela horretan ari diren historialari serioak, gertatu zena ulertu nahian, metodologia honetaz baliatzen direnak.

13. Berak emandako izendapenak errespetatuz aurkeztuko ditut.

(Beraz, baldintzaren lehen zatian aditz nagusia aspektu burutuan dago, geroaldiko *-ko* markarik gabe; baldintzaren ondorioa, aldiz, *-ko* markarekin edo *-ko* gabe jar daiteke, iragan-geroa erabiltzen den kasuan izan ezik, horretan beharrezkoa baita.)

- b) «Gauzatu ez zen iraganeko mundu posible horren ondorio modura hitz egiten ari garen unean bertan izango genukeen egoera» (Odriozola, 1996: 197-198), adibidez:

Lurreko bizitza silizioan oinarritu balitz, oso bizidun desberdinak leudeke gaur egun planetan / oso bizidun desberdinak egongo ziren.

(kasu honetan, iragan-geroa erabiltzean, ezin da gehitu «gaur egun planetan», aditza iraganekoa delako, eta suposatuzat ematen delako gaurtik hitz egiten dela; kasu hau bai aplikatu daiteke historiarentzako orainaldi historikoa egin nahi denerako).

- c) «Gauzatu ez zen iraganeko mundu posible horren ondorio modura hitz egiten ari garen unetik aurrera gauza litekeen gertaera» (Odriozola, 1996: 199-200), adibidez:

Espeziea, beste arnas-aparatu bat garatu izan balu, nagusi egingo litzateke etorkizun hurbilean.

edo

*«Espeziea, beste arnas-aparatu bat garatuko bazuen, nagusi egingo zen» (hau gaizki dago egilearen ustez, baldintza/ondorio binomioa barik, *ba-* markadun esaldia baita nolabaiteko ondorioa, adibidez «ahoa ireki behar, arnasa hartuko bazuen»)

edo

Espeziea, beste arnas-aparatu bat garatu izan balu, nagusi egingo zen / nagusi egingo zatekeen iraganean.

Beraz, zer gertatzen da historiarekin? Hauek dira neronek egindako erreflexioak orain arte ikusitakoaren arabera:

- Iragan-geroa bezalako formak erabil daitezke, gaur egundik begiratuta iraganean dauden gertaerak azaltzeko; betiere, aipatzen dena aurretik esan den zerbaiten ondoren gertatutako gertakaria bada (ez du zertan beti ondorio zuzena izan, baina bai nolabaiteko lotura). Adibidez:

Karlomagnok Europa kristauaren kontrol politiko-militarra lortu zuen VIII. mende bukaeran. (Hori dela eta,) 800. urtean enperadore izendatuko zuen Aita Santuak.

- Ez nuke gomendatuko iragan-geroa hipotesiak sortzeko erabiltzea, behintzat menturazko kasuetan (planteatu ahal izateko irrealerak direnez historikoki onartezinak dira eta). Gehiegizko adibide gisa:

Einstein-ek pertsonalki ezagutuko zuen Hitler (ez badakigu, ezin da horrelako baieztapenik egin; beraz, forma hau erabili ordez, hobeto ixilik egotea).

- Iraganeko baldintza irrealen ondorioetan iragan-geroa historia-fikzioa bezalako generoetan erabil liteke, adibidez:

Franco jaio izan ez balitz, Bigarren Errepublikaren gobernupean hartutako neurri politikoeekin Euskal Herria independentea izango zen.

- Hala ere, ez da utzi behar aipatu gabe egile batzuek diotenez, euskaraz kontakizunak egitean aspektu burutua erabiltzen dela, orainaldikoetan behinik behin orain burutua (Zubiri eta Zubiri, 1995: 401). Dirudenez, hau arrunta da, eta hizkuntza askok daukate kontakizunak egiteko aditz-denbora berezia, gaztelaniazko *pretérito perfecto* formaren parekoa¹⁴ edo, hizkuntzaren arabera, dagokiona (Weinrich, 1974: 104 eta hurrengoak), hots, euskaraz orain burutua¹⁵. Beraz, orainaldiari lotutako kontakizunetan ez dago zalantzarik, orain burutua erabili behar da; iraganaldiko kontakizunetan ere horrela beharko luke, baina *etorri da ala etorri zen?* Zein erabili behar da orain burutua edo iragan burutua? Arazoaren hasieran gaudela dirudi, baina bidean gaudenez, goazen, bada, hurrengo puntura.
- Orainaren formei dagokienez, soilik orain burutua erabiltzen da iraganaldiaren zentzuan (aurreko puntuan ikusi dugunagatik interesatzen zaiguna), aurrez ikusitako moduan¹⁶; baina zein kasutan? Bada, esan bezala, betiere pasatutako gertaerei dagokienez, baina gu gauden denborearen unitate-erreferentzia ez denean amaitu, adibidez: «Aurten / urte honetan etorri da», baina «joan den urtean / iaz etorri zen»; badirudi, hala ere, muga ez dagoela hain garbi zenbait euskalkitan eta «bart 23:00etan etorri da» esaten dela, orokorrean «bart 23:00etan etorri zen» arruntagoaren orde (gaueko 24:00ak izanik muga normalean). Baina, euskalki batzuei dagokien salbuespen hori, eta orainaldi historiko horren antzekoena den forma aplikatzen al da denbora-egitura guztietan? Edo soilik egun bateko kontuetan izaten da (eta, beraz, ez «urte honetan/joan zen urtean», «iaz/aurten» erako binomioekin? «Bart» jarri orde, «atzo gauean» jarrita ere posible al da hori egitea? Ikusten denez zalantza asko sortzen zaizkit forma edo salbuespen horren inguruan, eta filologian aditua den norbaitek argitzea komeniko litzatekeela uste dut. Horra hor, zalantza batzuk planteaturik.

14. Weinrich-ek berak aipatutako bi aditz-taldeetan agertzen den gaztelaniazko *ha cantado* forma, alegia (Weinrich, 1974: 194).

15. Ilari eta Entzi Zubiri-k aipatzen duten arren, euskaraz orainaldiko kontakizunetarako orain burutua erabiltzen da, “erdaraz ez bezala” (Zubiri eta Zubiri, 1995: 401). Seguru asko, gaztelaniaz erabiltzen diren narratioetako forma ez-burutuak gogoan harturik egiten dute ohar hori Ilari eta Entzi Zubirik. Ohartu nahi nuke, Weinrich-ek berak bere liburuaren leku desberdinetan egiten duela narrazio eta iruzkinean erabili beharreko aditz-aldien sailkapena, behe-rago ikusiko duguna. Baina alemaniarrek narrazioaren eta iruzkinaren arteko desberdintasunak azaltzen dituen arren —eta horietako bakoitzari zein aditz-forma dagokion—, ez du azaltzen oso garbi narrazioaren eta kontakizunaren arteko desberdintasunak zeintzuk diren, edota kontakizunaren barruan iruzkina ere sartzen duen (Weinrich, 1974).

16. Badirudi historian zehar ere horrela izan dela, eta orainaldiko formek, perifrastiko nahiz puntukariek, gehienez, orainaldiaz edo etorkizunaz aritzeko balio dutela edo «orainaldian lortutako egoera» adierazteko (Azkarate eta Altuna, 2001: 165). Historian zehar aditz perifrastikoen orainaldiko formen bilakaera aztertzeke edo beste batzuen, ikus egile berberen kapitulu osoa (Azkarate eta Altuna, 2001: 137-228).

Bestalde, Egunkariaren *Estilo liburuan* ageri denez (2001: 69), iraganeko kontuak iragan burutuan azaldu behar dira. Salbuespena, kronologiak egiterakoan dago (urtekariak ere hor sartu ahal izango dira, beraz). Kasu hori historialarioro baliagarria zaigu, geuk ere egiten baititugu. Liburu horren egileek aipatzen duten beste salbuespena «Istorio, liburu edo filmen hariak azaltzean» datza (Egunkaria, 2001: 69), zeintzuetan orainaldia nahiz geroaldia onarturik dauden, eta, beraz, orainaldi historikoa ere bai; kontuan izanik kontaketa horien testuingurua desberdina dela (kazetaritzarena, alegia), eta egileek argi markatu digutela bereizkuntza (*istorio* eta ez historia) kasu hori guk darabilgunetik bestelakoa dela esatera ausartuko nintzateke.

Baina ikus dezagun aurretik aipatu dudan beste egile batek honi lotuta dioskuna. Weinrich-ek (1974)¹⁷ egindako liburu oso interesgarri batean, bi motatako adierazpenak egiten ditu aditzari eta denborari dagokienez: batetik, aditzaren denbora eta 'denbora' kontzeptua ezin direla identifikatu (Weinrich, 1974: 31). Weinrich-en hitzetan (1974: 32): «Begi-bistakoa denez, Denboraren fase guztiak adieraz daitezke, bai orainaldiarekin¹⁸ bai etorkizuneko formekin; eta, hain argi dago gertaera hau, ezen askok denborazko orainaldia, denborarik gabeko denbora izendatu duten»¹⁹.

Weinrich-ek beste hau ere badio: azken finean, aditz-formaren denborak kontakizunaren erreferentzia adierazten digula. Hots, kontaketa edo narrazio batean iraganaldiak askotan errealtatetik urruntzea adierazten duela —beste mundu mitiko batean kokatzen du kontaketa, edo denborazko urruntasuna baino gehiago espaziala adierazten du— (Weinrich, 1974: 76-79)²⁰. Komentarioak (iruzkinak) egiten ari garenean, bestalde, orainaldiak eta aspektu burutuko aditz-formak erabiltzen dira²¹, hurbiltasuna eta benekotasun-kutsua emateko esaten/idazten denari (Weinrich, 1974: 95-98).

Beno, eta, orduan, zer gertatzen da gure gaiarekin?

Weinrich-ek dio kritika historikoa, iturri historikoez gain, literatura-kritikatik ere egin behar dela; hori esateko, Käte Hamburger-ek esaten duena jasotzen du (Weinrich, 1974: 106), alegia, narrazio-aldi bezala orainaldia ez dela egokia (gustu

17. Bibliografian ageri denez, argitalpen berritua atera du 2001ean, nik neuk gaztelaniara itzulia irakurri behar izan dudan arren; gaztelaniazko argitalpena, 1974koa berau, jatorrizko 1964ko bertsioan oinarritzen da. Ohartu behar dut, gainera, liburu honetatik ateratako aipuak eta adibideak neuk itzuli ditudala gaztelaniatik euskarara; beraz, akatsik bada, betor neuregana errua.

18. Gramatikalki horrela onarturik ez dagoen arren, aurretik ikusi dugunez (neure oharra).

19. Egileak diosku, aditzaren denbora-forma desberdinek gehitzen zaizkien denborazko adberbioen arabera adierazten digutela iragana, oraina edo etorkizuna (Weinrich, 1974: 26); era horretan iragan-formako aditz batek orainean funtziona dezake orainaldiko adberbio batekin, Käte Hamburger-en ideiak jarraiki (Jean Pouillon-en adibideetan oinarritzen da azken egile hori ere adierazpen horiek egiteko). Adibidez: «Bere betazalen azpian bere itxura ikus zezakeen oraindik gaur» (Thomas Mann) edo «Ordubete barru ospatuko zen hileta» (Georges Simenon).

20. Kasu honetan, *orain*, *gaur*, *atzo*, *bihar*, moduko adberbioak, kontakizunean *orduan*, *garai hartan*, *aurreko egunean*, *hurrengo egunean*, modukoetan bihurtzen dira. Horri dagokio liburuan zehar aipatzen duen bigarren aditz-taldea: iraganaldi edo aspektu burutu gabekodunena, berak dakartzan adibideak euskaratu gabe: *cantaba*, *cantó*, *había cantado*, *habría cantado* (Weinrich, 1974: 194).

21. Egileak dakartzan lehen aditz-taldearen adibideak: *canta*, *ha cantado*, *habrá cantado* (Weinrich, 1974: 194).

txarrekoa dela erabiltzea). Kritika historikoak, egiaren bila edo, sarri narrazio-aldia baztertu egiten du, iruzkinen aldia erabiltzeko²², egia dela esaten dena azpimarrazteko; baina baliabide hori ez da beharrezkoa, Weinrich beraren ustez (1974: 107).

Baina are gehiago diosku, historiak ari denean hitz egiten (Weinrich, 1974: 110-111):

Komentario- eta narrazio-aldien nahasketa historiografiaren ezaugarri berezia da. (...) Historialariak beste guztiok denborarekin dugun harreman bikoitz berbera dauka, baina are gehiago bere kasuan, bere funtzioaz konturatzen baldin bada. Historialaria iraganaren narratzailea da, alde batetik, behingoz esan dezagun: historien narratzailea. Baina, aldi berean, historialaria zientzia-gizona da. Ez du iragana kontatzearekin nahikoa, aldi berean, ulertu, irakatsi, interpretatu eta abar egin nahi du iragan hori. Hitz bakarrarekin esanda: komentatu egin nahi du. Horregatik, bi aldi-taldeetako denborak erabiltzen ditu, eta zenbat eta historialariaren kontzientzia historikoa formatuagoa izan, hainbat eta era kontsekuentiagoan. (...)

Beraz, historialariak, batetik, narrazioan ohikoak diren denborak erabiliko ditu (aipatu ditugun iragan burutu eta ez-burutuak) eta, aldi berean, bestetik, iruzkinen mailan erabiltzen direnak (egile horren hitzak erabiltzeko), hots, orainaldikoak eta etorkizunekoak, burutuak betiere; eta historialariaren estiloak markatuko du horien erabilera, bere ustez²³. Hori dela eta, bi erreferentzia-mailetan erabiltzen diren aditz-aldiak erabil daitezke. Baina nolabait, kontaketarako orainaldiko formak ez dira egokiak estilo gisa, gehien jota historialariak bere gogoetak eta analisiak jar ditzake orainaldian (eta antza burutuan).

Azkenik, eta bukatzeko, tradizioan euskaraz historia nola egin den ikusteko, Kardaberaz eta Larramendiren testu batzuk agertu nahiko nituzke (kontakizun erlijiosoak direla kontuan izanik).

Larramendik 1737an Azkoitiko parrokiaren «Virginaren icenaren egunean» eskainitako sermoian, badira zenbait pasarte interesgarri gure gai honetarako (Larramendi, 1990):

Ezcutatu cigon aingeruac Virgiñari bere icena, cergatic Mariac esan nai deu itsaso miña ta ain zori oneco berriac ematen ciran, egun batean, etzetorren ondo bere icenean Virgiñari gogoratzea bere doloreen itsaso samiña.

Kasu horretan iraganaldian kontaturiko pasartean oraina sartzten du esanahi bat emateko, idazlearen orainaldian ere hori esan nahi baitu izen horrek.

Aimbeste bada bere semeari nai izandu cion (...) Eta doloreen Ama, cer diozu?

Beste kasu horretan orainaldia sartzten du, orainalditik egindako deklamazio edo dei batean.

22. Ikus aurreko oharra.

23. «Hala ere, azalpen historikoetan ez dira beti zati narratiboak eta iruzkinak aurkitzen, erregularitate gehiago edo gutxiagorekin txandatzten dira. Historialariaren estiloari askatasun zabala eskaintzen zaio; baina historiografian oinarrizko egitura bat aurki daiteke, zeinetan narrazioa komentarioan itsatsita dagoen. (...) historiografiaren oinarrizko egitura hori *testuingurudun narrazioa* da (*Rahmenerzählung*), narrazioa inguratzen duen iruzkin-testuingurua, alegia» (Weinrich, 1974: 111).

(...) onela hitzeguin ceguiquion. Ay nere seme gozo, nere beguietaco argui, nere biciaren bicia! nola ifiñi zaituzten Adanen humeac!

Hor ere, orainaldia iraganaldi hartan egindako komentario edo hizketaldi bati dagokio, horregatik dago orainean.

Nolaco damu ta naigabeac izango cituan beraz gueure Ama doloreenac, icusi ceuanean (...) bere errayetaco semea illic, ta igarturic?

Hemen ikusten da, kontakizunaren harian, iraganaldia erabiltzen duela besterik gabe.

Bada martyrio orreec gucioc dacarciten dolore guciac igaro cituan Virgñac bere biotzean. Biotz arc sentitzen ditu ezpataz josiric balego bezalaco doloreac.

Sinesmenaren orainaldian dago, hots, kasu honetan iraganaldiko kontakizuna orainera dator, baina ez orainaldi historikoan, baizik eta, sinestunarentzat Ama Birjinaren doloreak orainaldiko kontua direlako egilearen aburuz.

Goazen Kardaberaz aztertzeraz:

Sinisten det Jesukristo zeruetara igo ta Aita Jaungoiko Alguztidunaren eskui aldetik eseririk dagoela.

139. G. Nola igo zan Jesukristo zeruetara?

E. Bere al utsez, Apostolu ta Ikasle-talde aundi baten aurrean igo zan Jesukristo zeruetara.

140. G. Jesukristo zeruan beste inon az [sic.] al-dago? (Kardaberaz, 1936: 22)

Adibide horretan, lehengo kasu bera ikusten da: iraganean gertatu zen, baina oraindik Zeruan dago Jesukristo sinestunentzat.

Pauso bacoitzean Ignacioren biotza erdiratu, edo puscaturic, amorez ta dolerez urtu, ta deseguiten zan. (Kardaberaz, 1901: 51)

Ikusten denez, kontakizuna iraganean kontatzen da, besterik gabe, eta hori da lan osoaren tenorea.

Azken adibide gisara:

Pobreentzat limosna escatu, ta ogui zatiric gogorren da beltzena gorde oi zuen. Ines-ec ori jaten icusi ta esan cion: gucien pobreena zu izanic, bestea ogui zuri ona eman, ta zuc ori jaten dezu?

Ikusten denez, orainaldia elkarrizketa berregiten denean baino ez da onartzen eta erabiltzen.

4. Ondorioak

Bukatzeko ideia nagusienak laburbiltzen saiatuko naiz. Historiako lanak egitean, badirudi, orainaldi historikoaren erabilera gaztelaniarena dela, eta ez euskararena; kontakizunaren narrazioa iraganaldiko formetan egin behar da (forma burutuak nahiz ez-burutuak erabil daitezkeelarik). Iraganaldiko formez gain,

erabil daitezkeen formen artean, iragan-geroko formak eta orainaldiko formak ditugu, baina testuinguru zehatz eta gutxi batzuetan baino ezin dira sartu. Iragan-geroa, bada, idazten den unetik iraganean dauden kontuetan, baina aurrez aipatutakoarekiko etorkizuna direnetan erabiliko da (eta ez etengabe). Orainaldiko formak, berriz, kronologietan eta urtekarietan erabil daitezke (baina kasu horietan iraganaldiko formak erabiltzea ere posible da); agian, sakonago aztertu beharko litzateke gure denbora erreferentzialeko unitatearen barruan ari garenean —Aro Garaikidearen eta Egungo Mundua deitu denaren historia egitean²⁴—, edo historialariak bere balorazio propioak sartzten dituenean, komentario gisa eta ez kontaketa gisa²⁵; eta, noski, horiek ere ezin dira sistematikoki erabili gaztelaniaz egin ohi den moduan; bada, kontakizunaren narrazioan orainaldiko formak estiloz ez dira onargarriak eta egiazkotasun-kutsua emateko ere ez dira beharrezkoak.

Noski, ez nuke ahaztu nahi historialari batek egindako gogoeta dela hau, eta filologoen esan dezaketenen zain geratu beharko dugula.

Erabilitako bibliografia

- Alarcos, E. (1994): *Gramática de la lengua española*, Real Academia Española, Espasa-Calpe, Madril.
- Azkarate, M. eta Altuna, P. (2001): *Euskal Morfologiaren Historia*, Elkarlanean, Donostia.
- Egunkaria (2001): *Estilo liburua*, Egunkaria, Andoain.
- Euskaltzaindia (1987): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak - II*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Kardaberaz, A. (1901): *Azpeitico erri chitez noblearen gloria paregabeac edo Aita San Ignacioren bicitza laburra*, Francisco Muguerza, Tolosa.
- Kardaberaz, A. (1936): *Gasteiz'ko eliz-barrutirako Kristau-ikasbidea*, Montepio Diocesano, Gasteiz.
- Larramendi, M. (1990): *Euskal Testuak*, Altuna, P., Lakarra, J. A. (arg.), Andoingo Udala, Donostia.
- Odriozola, J. C. (1996): "Euskal baldintzazko adizkiak eta euskal baldintzapenak", in I. Zabala (koord.), *Testu-loturarako baliabideak: euskara-teknikoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 193-224.
- Weinrich, H. (1974): *Estructura y función de los tiempos en el lenguaje*, Gredos, Madril [Weinrich, H. (2001): *Tempus: besprochene und erzählte welt*, Munich, Beck]²⁶.
- Zubiri, I. eta Zubiri, E. (1995): *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbo.

24. Adibidez: «mende honetan asmatu da etxerako DVD grabagailua» edo «mende honetan asmatzen da etxerako DVD-grabagailua»(?), azkeneko hori zalantzazkoa da.

25. Talde honetan sar ditzazkegu, agian, neure aburuz, «mende horretan asmatuko da etxerako DVD grabagailua» bezalako adibideak edo dokumentuetan ageri den zerbait aipatzean, adibidez: «1486ko Chinchilla lizentziatuaren dokumentuan *dator* zehaztua Bizkaiko hiribilduak bandoetatik nola askatu behar *ziren*».

26. Eskerrak eman nahi nizkioke Andolin Eguzkitza jaunari, liburu hau gomendatu zidalako gai honi buruz artikulu hau egiten ari nintzela jakin zuenean.